

Kortxoaren Dilema

Patxo EGILEA
ETA AKTOREA
Telleria
Mikel AKTOREA
Martinez
Mireia ZUZENDARIA
Gabilondo
TARTEAN
teatroa



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

A TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

 **ESKENA**
Euskadiko Ekizite Ezzen-koen Elkartera

HARROBIA
Euzko Unibertsitatearen
Kampusaren Barnean
Euzko Unibertsitatearen
Kampusaren Barnean


TARTEAN
teatroa

(Sinopsia)

Endreuzko thriller politikoa bi aktorerentzat, espazio eta denbora unitate bakarrean.

IRAKASLEA (70 urte), Etika eta Filosofia Politikoan katedradun jubilatua da, ezkertiarra, polemikoa eta itzal handikoa. Noam Chomsky iberiar bat.

Pronostiko gaiztoko minbizia dauka, baina sendatzeko aukera sortu da ezustean. Aberats ospetsu batek osasun sistema publikoari dohaintzan eman duen radioterapia ekipamendu batean tratamendua har dezake. Iritzi publikoak goraiatu egin du donazio hau. Bakan batzuk, ordea, gaitzetsi egin dute. Hauen ustez buru zuritze bat da, trileru baten trukua, legez ordaindu beharko lituzkeen zergak ez ordaintzeko, eta bere enpresetan agertu diren trapu zikinak estaltzeko. Aberatsaren amarru honen salatzaileetako bat, nabarmenetakoa, Irakaslea izan da.

Orain erabaki latza hartu behar du: bere printzipioekiko leiala izan eta bizitza salbatzeari uko egin; ala prakak jaitsi eta filantropoari ipurdian pot egin.

Gaur hartu du erabakia. Publikoki iragartzera doan unean, ezezagun bat, bere IKASLEA (60 urte) izandako bat agertuko zaio ezustean. Aspaldiko kontuak garbitzera dator.

ZERGATIK KOMEDIA POLITIKO BAT?

Zaila da gaur eguneko antzezlan bat genero klasikoen muga zorrotzen barruan sailkatzea. KORTXOAREN DILEMA honek sakontasun handiko konfliktu politikoak eta dilema etikoak baliatzen ditu, baina ez da drama bat, baizik eta komedia politikoa. Zergatik eta bere egituragatik.

Antzezlan hau endreduzko komedia bihurtzen da trama eroagatik. Etengabe irteten dira ustekabeko untxiak txisteratik. Ustekabeok egoera bakoitzaren norabidea errotik aldatzen dute, pertsonaiak eta ondorioz ikusleak ere, ezustean harrapatuz. Ezer ez da hasiera batean ematen duena.

Eta politikoa da, kontzeptuaren alderik intimoenean, pertsonaiak amildegia ertzean kokatzen dituelako. Bizitza bera joka dezakegu, zenbait printzipio politiko mugaraino asumituz gero.

KORTXOAREN DILEMA etika, koherentzia, traizio eta mendekuei buruzko joku teatral bat da.

Borroka honetan, bizitza galtzen ez duenak, dignitatea galduko du.

Borroka latza eta nahasia izango da, post egia eta fake-en garai ilun honetan, zaila delako bereiztea zer den zinezkoa eta zer faltsua.

FITXA ARTISTIKOA

Egilea: **Patxo Telleria**

Zuzendaria: **Mireia Gabilondo**

Eszenografia: **Fernando Bernués**

Aktoreak: **Patxo Telleria eta Mikel Martinez**

Zuzendari laguntzailea: **Aitor Borobia**

Jantziak: **Ana Turrillas**

Espazio sonoroa: **Adrian Garcia de los Ojos**

Eszenografiaren eraikuntza: **Raul Arraiza**


Argiztapena: **David Rodriguez**

Kartelaren diseinua: **Paradox**

Ekoizpen exekutiboa: Pío Ortiz de Pinedo eta Myriam Garzia



CURRICULUM-ak



PATXO TELLERIA, 1960an Bilbon jaioa.

1985ean Maskarada antzerki taldean hasi zuen bere ibilbidea aktore gisa, eta konpainia honetan 10 urte eman zituen. Baita ere, konpainia berean antzezlanen testu egile bezala aritu zen. Maskaradako garaietan berak idatzitako antzezlanen artean daude: **“Marxkarada”** (1992), **“Monstruo Sakratuak”** (1994) eta **“Kaio Luma Zikina”** (1995).

Ordutik, antzerkiko aktore, egile eta zuzendari lanetan aritu da.

2000 urtean Mikel Martínez eta Jokin Oregirekin batera TARTEAN TEATROA konpainia sortu zuen. Konpania honek taularatu dituen antzezlan gehienak idatzi ditu hasiera-hasieratik: **“Historias de un Contenedor” / “Kontenedore baten istorioak”** (2001), Euskadiko Errebelazio saria urte horretako **Max sarietan**; eta, baita ere **“Sonata en un segundo... y pico”** (2003). Honen ostean, **Dibertimenduak** osatzen duten trilogiaren hiru ikuskizunak sortu zituen: **“Euskara Sencilloaren Manifiesto”** (2002), Euskarazko testurik onenaren saria **Max sarietan**: **“Larruaizetara”** (2005) eta **“Euskarazetamol”** (2009). Gero etorri ziren: **“Enfarmados- L.K.M.”**-, Jokin Oregirekin batera (2010), baita ere Euskarazko testurik onenaren **Max saria** 2012an eta, **“Lingua Nabajorum”** (2012), 2013ko **Max saria** Euskarazko testurik onenari eta urte horretako **Donostia Saria** baita ere.

2014ean **“Páncreas”** antzezlanaren euskarazko bertsioa estreinatu zuen. Ikuskizun honen gaztelaniazko bertsioa 2015ean taularatu zen Espanian, publiko eta kritikaren harrera ezin hobearekin.

Baita ere 2014an, **Zergatik Jamil? ¿Por qué Jamil?** idatzi zuen euskaraz zein gaztelaniaz TARTEAN TEATROarentzat.

Shakespeare-ren **“Sueño de una Noche de Verano”** moldatu zuen antzerkirako **Donostia 2016 Europar Kultur Hiriburuaren** testuinguruan.

2019an **Egile Onenaren Toledoko Rojas saria** irabazi zuen, Vaiven Ekoiztetxeak taularatutako **Último Tren a Treblinka** antzezlanagatik.

Horren ostean TARTEAN konpaniak taularatutako ikuskizun gehienak idatzi eta zuzendu ditu: **Ed3 Euskal Musikaren benetako istorioa (2017)**, **Ghero (2018)**, **Simplicissimus (2019)** (euskaraz eta gaztelaniaz), **Ez dok Ero (2020)**, **Alderray (2022)** eta **La Paz estéril/ Bake Lehorra (2022)**.



MIREIA GABILONDO GARITAONANDIA, 1965ean Bergaran jaioa.

Euskal Herriko arte eszenikoen irudi nabarmenetako bat da, zuzendaritzan eta interpretazioan eskarmentu handia duelarik, dela antzerkian, dela zineman edo telebistan.

Antzerkian, zuzendaritza lanetan, bere azken muntaien artean, *Sexberdinak*, *Ameriketako bidaia*, *Gauekoak* (Kukai), eta Vaiven konpainiaren *Azken tren* *Treblinkara*, *Argiaren hautsa* edota *Erlauntza* daude. Aipatzekoa da ere Fernando Bernués-ekin batera zuzenduriko *El Florido Pensil* eta *El Florido Pensil neskak* antzezlanak.

Berak zuzenduak dira *Kutsidazu Bidea Ixabel* (2005), *Mugaldekoak* (2010), *Amaren eskuak* (2013) eta *ERLAUNTZA-ENJAMBRE* (2020) filmak.

Aipagarriak dira antzezle bezela, *Semea pixka bat motelago dabil soilik* (2022), *Sisiforen paperak* (2020), *Utzi zure mezua seinalearen ondoren* (2019), *Giltzadun Etxea* (2017), *Muxua* (2015), *Barealdi Magikoa* (2014), eta *Soinujolearen Semea* (2013), besteak beste.

Telebistan (EITB), aktore bezala ibili da *Jaun ta Jabe* (1995-96), *Hertzainak* (1999), *Mi querido Klikowsky* (2005-09), *Martin* (2003-08), *Mugaldekoak* (2010), edota *Altsasu* (2020) telesail ezagunetan. Horietako batzutan zuzendari eta gidoilari bezela ere.



FERNANDO BERNUES, 1961ean Donostian jaioa.

Ibilbide luze eta aitzatetsiduna, telebista, antzerkigintza eta zinemagintza munduan murgildu da arrakasta handiz. Egungo euskal arte eszenikoen erreferentea da.

Bere lanen artean, aipatu behar dira: *“El Florido Pensil”*, *“Novecento el pianista del océano”*, *“Paradero Desconocido”*, *“La dona justa”*, *“Soinujolearen Semea”*, *“Sisiforen Paperak”* eta *“Semea pixka bat motelago dabil soilik”*.

Eszenografia egile ezaguna da baita ere, azkarra eta adimentsua, berezko autore zigilua eransten die bere lanei. Berezko hizkuntza honi esker, poetika handiko espazioak sortzen ditu, jantzigintza, argiztapena, soinua eta aktoreen mugimenduari oso lotuak daudenak. Adibidez, *“Ultimo tren a Treblinka”* edota *“Sexberdinak”* ikuskizunetan, espazio eszenikoa laborategia bilakatzen du, esperientzia berritzaileak sortuz bai publiko zein aktoreentzat. Max sarietan Eszenografiarik Onenen artean izendatua izan zen *“De Gernika a Nueva York pasando por Berlín”* lanagatik eta, *“Gauekoak”* lanarekin finalista suertatu zen.

Zinemagintzari dagokionez, Bernardo Atxagaren eleberrian oinarritutako *“Soinujolearen Semea”* filma aipatu beharra dago. Mireia Gabilondorekin batera hainbat film zuzendu ditu euskaraz, hauen artean: *“Kutsidazu bidea, Ixabel”* eta *“Mugaldekoak”* pelikulak, adibidez.

Telebistari dagokionez, 90.hamarkadatik lan egin izan du Euskal Telebistan zuzendari, gidoigile eta ekoizle bezala hainbat serietan: *“Maite”*, *“Martin”*, *“Mi querido Klikowsky”*, *“Kutsidazu bidea, Ixabel”* edota *“Mugaldekoak”*.



MIKEL MARTINEZ, 1955ean jaioa Arinzano herrian (Lizarra-Nafarroa).

Maskarada Antzerki Taldearen partaide hainbat urtetan. Talde honen antzezlan askotan hartu du parte aktore gisa: (1984) Pistolaren Begi Zuri Beltzak (Dario Fo); (1985) Gastibeltzaren Karabinak (Marck Legasse); (1986) Harrizko Aresti Hau; (1987) Gernika 16:30 H.S.O; (1987) Ni eta Nire Sudurra (Pirandello. Bakarriketa); (1988) Kontrabajua (Patrick Süskind. Bakarriketa); (1991) Marxkarada; (1993) Monstruo Sakratuak; (1998) Izarretako Bitakora (Stalislaw Lem); (2000) Kaio Luma Zikina; (2001) Kontenedore Baten Istoriak...

2000 urtean "Ez Dok Hiru Bikoteatroa" sortzen dute berak eta Patxo Telleriak eta, TARTEAN teatroa konpainia sortzen dute biek Jokin Oregirekin batera. ED3 bezala hainbat ikuskizun taulartu dituzte eta sariak jaso euren lanagatik: (2003) Euskara Sencilloaren Manifiesto; (2004) Lezio Berri Bat Ostrukari Buruz (B. Atxaga); (2006) Larru Haizetara; (2008) Euskarazetamol; (2010) Larria, Kutsakorra, Mendebaldekoa; (2012) Lingua Nabajorum; (2014) Pankreas; (2014) Korapiloak (Stanislaw Lem); (2015) Desentxufatuak; (2015) Zergatik, Jamil? ¿Por qué Jamil? euskaraz eta gaztelaniaz; (2016) Biba Voi (Dario Fo eta Franca Rame); (2017) Ez Dok Hiru "Euskal musikaren benetako istorioa"; (2018). Tabernaria "Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña" bakarriketa; (2018) Ghero; (2019) "Ez Dok Ero"; (2022) Alderray.

SARE SOZIALETAN AURKITUKO GAITUZUE

FACEBOOK: <https://www.facebook.com/TARTEANteatro/>

TWITTER: <https://twitter.com/TARTEANteatro>

INSTAGRAM: <https://www.instagram.com/tarteanteatro/>

WEB: www.tartean.eu

HARREMANETAN JARTZEKO: tartean@tartean.eu / 688617712 telefonoa

ESTREINALDIA (eus): 2023ko azaroaren 15 eta 16an
Bilboko Arriaga antzokia

Bilboko Arriaga antzokiaren kolaborazioarekin